



### **EUSKARA**

- Mintza zaitetz euskaraz: dakizulako, nahi duzulako, euskalduna zarelako.
- Saia zaitetz lagunekin gelatik kanpo ere euskaraz hitz egiten: patioan, ikastolarako joan-etorrietan,...
- Erabil itzazu zure esku diren aukerak euskaraz bizitzeko: kirola egin, liburuak irakurri, antzerkera joan, filmak ikusi.



### **PUNTUALTASUNA**

- Puntual jokatu etxetik etortzerakoan eta entzun ezazu sarrerako musika gelan bertan.
- Itzul zaitetz gelara zuzen eta denbora galdu gabe jostaldia bukatzerakoan.
- Abia zaitetz gelara puntual eguerdian ere.



### **HARREMANAK**

- Agurtu itzazu beti lagunak eta ezagunak, irakasle eta helduak: sartzerakoan, ateratzerakoan, goiz eta arratsaldean.
- Atsegintasunez agurtu pertsonak modu eta molde ezberdinak erabiliz.
- Joka ezazu dotere ikastolan egin beharreko mandatueta: agurtu aurretik, eskatu ongi eta eman eskerrak.
- Errepetua adierazi ezazu ikastolan ari diren langileen aurrean: irakasle, jantokiko arduradunak, atezainak edo garbitzaileak.



### **JOLASAK**

- Bila itzazu jolas komunak neska-mutilak elkarrekin aritzeko.
- Jolas egiterakoan errespeta ezazu bakoitzaren borondatea eta gustuak inor ezertara behartu gabe.
- Adi izan jolasak aukeratzerakoan: futbolaren inguruan arazoak sortzen dira sarritan.
- Bete itzazu patioa erabiltzeko eginak dauden txandak.



### **LANA**

- Osatu eta gaurkotu zure agenda eguneroko berriekin.
- Jarrai itzazu arretaz gelan egiten diren azalpenak eta lanak.
- Eduki itzazu ordenatua eta txukuna zure mahaia, bizkar zorroa eta gela.